



Justiziaren atzetik betiko borroka Zuzenbidea Europarako bidean

(The eternal struggle for Justice)



HÄBERLE, Peter

Zuzenbide Publikoko, Zuzenbidearen Filosofiako eta Zuzenbide Eliztarreko
katedraduna
Bayreuth Unibertsitatea
D-95440 Bayreuth
Alemania
peter.haeberle@uni-bayreuth.de

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 5-10]

Artikulu honetan kultur historia gisa aztertzen da antzinate klasikoan hasten den jurisprudentziaren bilakaera. Zuzenbidea berez kultur zientzia da, garaiko kulturarekin harreman sakonak baititu. Kulturarik gabe, humanismoaren eta ilustrazioaren ekarriak baztertzen dituen zientzia juridiko batek ezin du babestu legelaria sistema bidegabeetan erortzetik. Zuzenbidearen irakaskuntzak gaur erronka nagusi batzuk dauzka: bere lotura praktikoa jorratzea, baina oinarrien ikerkuntza ahaztu gabe; espezialitate guztiak aintzat hartzea eta berrientzako irekitasuna izatea, baina zuzenbidearen batasunari gogor eustea; zuzenbidearen europartzea ezagutzea eta lantzea, baina estatu bakoitzeko zuzenbideko erkidegoa oraindik ere legelariaren euskarri bakarra dela ahaztu gabe.

En este artículo se analiza el devenir de la jurisprudencia, que hunde sus raíces en la antigüedad clásica, como una historia cultural. El Derecho constituye ante todo una ciencia cultural, con relaciones profundas con la cultura de su tiempo. Con una jurisprudencia sin cultura, sin los contenidos elaborados por el humanismo y la ilustración, el jurista queda desprotegido frente a los sistemas injustos. La enseñanza del derecho tiene que responder a diversos desafíos: atender a su vertiente práctica sin descuidar la investigación de los fundamentos; aceptar la diversidad de especialidades y estar abierto a otras nuevas sin olvidar el postulado de la unidad del derecho; atender a la creciente europeización sin olvidar que la realidad estatal constituye la comunidad jurídica de referencia del jurista.

Dans cet article, on analyse le devenir de la jurisprudence, qui plonge ses racines dans l'antiquité classique, comme une histoire culturelle. Le Droit constitue avant tout une science culturelle, ayant des relations profondes avec la culture de son temps. Avec une jurisprudence sans culture, sans les contenus élaborés par l'humanisme et le siècle des lumières, le juriste est dépourvu de protection face aux systèmes injustes. L'enseignement du droit doit répondre à divers défis: répondre à sa pratique sans négliger la recherche des causes; accepter la diversité des spécialités et être ouvert à de nouvelles spécialités sans oublier le postulat de l'unité de droit; répondre à la croissante européanisation sans oublier que la réalité publique constitue la communauté juridique de référence du juriste.

Zuzenbidearen historia: kultur historia bat

Hammurabiren lege-oholetaraino (ca. 1700 K.a.) atzera joan edo Bibliaren adierazpenak justiziari buruz irakurririk eta Salomon epaile-erregea aintzat harturik ere, beste hainbeste bezala, orobat “pentsamendu juridikoa” Grezia zaharrean sortzen da (Erik Wolf). Aristotelesek gaurdaino eraginkor diren testu klasikoak idatzi ditu, esate baterako, berdintasunaren eta justiziaren arteko harremanaz, eta *justitia commutativaren* (justizia orekatzailea, adibidez errua eta ordaina, kalte-ordaina) eta *justitia distributivaren* (justizia banatzailea, adibidez zerga-sistema progresibo gisa) arteko mugaketa ere berea da. Dena dela, zuzenbidearen praktikari jenialak erromatarrek izan ziren. Hori Erroman, hamabi oholetako legeria ezagunarekin hasten da (450 K.a.; 580 K.a. Solon aitzindaria izanik ere): lehen aldiz argitaratu zen hemen eta orain indarrean zegoen zuzenbidea —orduz geroztik zuzenbidea ez da apaiz kasta baten sekretua izango—; eta errepublikaren aro klasikoan (Zizeron, 43 K.a. hila) eta inperio aroan legelari handiek (“pretoreek”), adibidez Zeltsok, Papinianok, Ulpianok garatu zuten zuzenbidea (K.o. 2. eta 3. mendean): beraiei zuzenbidezko jakituriak Europa osoan zuzenbide zibilean eragin handia izaten jarraitzen dute. Justiniano Ekialdeko enperadore erromatarrek 529. urtean burututako kodegintza (*corpus iuris civilis*) Goiz Erdi Aroan ahanzi edo arruntu zuten, baina 1100etik aurrera glosatzaileek (Irnerius) Bolonian berraurkitu egin zuten eta orduz geroztik Europa osoan *case law*tik *ratio scripta*-ra iragan zen. Orduz geroztik erromatarrek legelaririk handientzat jotzen ditugu. Orduko goi klaseak *ius civile*-ri ekiten zion hausnarketako kirol ariketa balitz bezala (orain arte gainditu ezinik). Zuzenbide eliztarra ere (adibidez, 1140ko *Decretum Gratiani* eta 1580ko *Corpus iuris Canonici* eta 1917ko eta 1983ko *Codex iuris Canonici*) legelarien arte horretan oinarritzen da oraindik.

Nazio Estatuak sortu eta Frantziako iraultza (1789) gertatu arte, Europan bazen “zuzenbide erkide” bat. XV. mendetik aurrera printzeek, bereziki Alemanian, funtsean berezko interesengatik, gero eta gehiago inposatu zuten zuzenbide hau (“jasoaldia”). Salamancako eskolak (Vitoria eta Suárez, XVI.-XVII. mendeetan) eta Grotiusek egun klasikoak diren printzipioetan oinarritu zuten nazioarteko zuzenbidea —zeini Zizeronek oraindik “*jus gentium*” esaten baitzion—, esate baterako “*pacta sunt servanda*” delako printzipioan (1625), ondoren Kanten “Betiko bakeaz” obraraino (1795) abian jartzeko.

Karlos I.aren “*Carolinak*” (jurisdikzio penalaren arauketa) kode moderno bat eman zion zuzenbide penalari (1532) eta Prusiako Zuzenbide Orokorrak (1794), Napoleonen Kodeak (1804), BGB alemaniarrek (1900) eta Eugen Huberren ZGB suitzarrak (1912) zuzenbide zibilari bilakatzeko bultzada handiak eman zizkieten artean, zuzenbide publikoak, berriaz, batez ere konstituzio zuzenbidearen arloan, egungo ulermenera iristeko bide neketsu bat iragan behar izan du. Bere bilakaera data ospetsu batzuetan laburbil daiteke: 1776 (*Virginia Bill of Rights*), 1787 (Estatu Batuak bilakatzen ari zirenen “*Federalist Papers*”, Estatu Batuetako Konstituzioaren Aitak izan zirenen saiakera-bilduma alegia), 1789 (Giza Eskubideen Frantziar Adierazpena), 1831 (Belgikako konstituzioa), 1849 (Done Paulo Elizan egindako Inperioaren Konstituzio alemaniarra, paper hutsean geratu bazen ere, inperioaren nahiz estatuen ondorengo zuzenbide historian oso eraginkorra suertatu baitzen). Nazio Batuetako Erakundearen Giza Eskubideei buruzko Agiriak (1945/48), 1947ko Italiako konstituzioak, 1949ko konstituzio alemaniarrek eta 1976ko eta 1978ko Iberiar penintsulako konstituzio biak, giza duintasunaren eta eskubideen, demokraziaren, botereen banaketaren, zuzenbideko estatuaren printzipioaren, federalismoaren edo erregionalismoaren eta merkatuko ekonomia sozialaren kontuekin, “konstituzio-estatuaren proiektua” pixkanaka abiarazi zuten, zeinak

Peter Häberle jauna (Gröppingen, Alemania, 1934) Bayreuth Unibertsitatean (Alemanian) zuzenbide publikoko, zuzenbidearen filosofiako eta zuzenbide eliztarreko katedraduna da eta Sankt Gallen Unibertsitatean (Suitzan) irakasle gonbidatu iraunkorra da. Tesaloniki eta Granadako Unibertsitateetatik Doctor honoris causa da. Peter Häberle 20. mendeko zuzenbide publikoko alemaniar zientzia handiaren —Kelsen, Schmitt, Heller, Smend, Hesse— epigonoa du. Metodologiaren aldetik *konstituzio* zuzenbidea defendatu izan du —Heller, Hesse edo Ehmke batek bezalaxe— Alemanian oso hedatuta dagoen *estatuaren* zuzenbidearen kontzeptiotik urrunduz. Bere curriculumak eta bere argitarapenen zerrenda ikaragarria da. Hemen ez dago bere lanak aipatzeko lekurik, ezta lan nagusien zerrenda ematerik ere: 20 liburu propio, eta beste batzuk argitaratzaile gisa; 150 artikulua baino gehiago. Hala ere, zuzenbide publikoaren arloan aritu nahi duen legelari ororentzat nahitaezkoa da ondoko tituluak ezagutzea: lehenik eta behin, Konrad Hesserekin egindako eta klasikoa den funtsezko eskubideen edukari buruzko doktoretza-tesia, *Die Wesensgehaltgarantie des Art. 19 Abs. 2 Grundgesetz* (1962; 3. argitaraldia, 1983); *Öffentliches Interesse als juristisches Problem* (1970); *Verfassung als öffentlicher Prozeß* (1978); *Die Verfassung des Pluralismus* (1980); *Verfassungslehre als Kulturwissenschaft* (1982); *Rechtsvergleichung im Kraftfeld des Verfassungsstaates* (1992); *Europäische Rechtskultur* (1994). Bere ideietara lehen hurbilketa baterako oso gomendagarriak dira Francisco Balaguer irakasleak egin zion elkarriketa (*Anuario de Derecho Constitucional y Parlamentario*, 1997, 9 zkia) eta neuk itzultako lau artikulua oso ezberdinek osatzen duten *Retos actuales del Estado constitucional* liburuxka (IVAP-HAEE, 1996). Iazko udan berarekin Bayreuth-en nengoela, euskaraz egiten nuela jakin zuenean, berehala esan zidan oso gogokoa izango zuela nik bere lanetatik zerbait euskaratzea (bere lanak hamar hizkuntza baino gehiagotara eraman dituzte: katalanera, greziera, poloniera, serbokroaziera, japoniera, koreera, e.a.). Bere iritziak laburbiltzen dituen eta interes orokorrekoa, hala estatu mugez nola zuzenbide adarrenez gaindi, suerta daitekeen artikulua tipti bat hautatu zuten berak, hain zuzen ere irakurleari ondorengo orrialdeetan eskaintzen zaiona. *Xabier Arzozen oharra*.

HÄBERLE, P. Justiziaren atzetik betiko borroka. Zuzenbidea Europarako bidean. *Eleria*. 8, 2001, 5-10



1989ko *annus mirabilis*-ean bere printzipioen burutzapena ikusi baitzuen. Honekin lotuta estatu-zuzenbidearen teoriaren baloraketa berria zientzia gisa gertatu zen, eta Weimarko garaian sortu ziren “titanen” (H. Heller, R. Smend eta C. Schmitt) lepoetan datza konstituzio alemaniarra, hala konstituzioaren berezko testuak nola testu zientifikoak eta jurisprudentziarenak. Batez ere “positibismoarekin” (legea = zuzenbidea, edo “edozein estatu zuzenbideko estatutzat” jotzea) izandako eskarmentuak G. Radbruch zuzenbidearen filosofoa eragin zuen 1945. urtearen ondoren iriztera giza eskubideei so egiten dien estatu aurreko justizia bat dagoela, zein zigorrik gabe ezin hauts baitaiteke (ad., Berlingo harresiko tiro-egileen kontua).

Zuzenbidearen hiru eremu klasikoek –zuzenbide zibilak, penalak eta publikoak– beren berezitasunak dauzkate, baina konstituzioaren lehentasuna dela-eta konstituzioarekin lotuta daude; maila berean eta lan-banaketa egiten dute lan gure Errepublikaren ordenamendu juridikoan. Filosofiazko oinarriak dituen, historiazko eskarmentuak bizi izan dituen eta oro har gizakiarentzat duingarria den zuzenbide baten alde lan egiten duen zientzia denez gero, jurisprudentziak lotura mehe eta sakonak ditu garaiko kulturarekin. Hauxe E. von Repgownen “Saxoniako ispilua” (1220an gutxi gorabehera) zuzenbideko liburu alemaniar handian erakusten da, baita bioetikaren kontu zailenetan edo erantzukizunaren printzipioaren (H. Jonas) arabera ingurumeneko konstituzio zuzenbidea bilakatzerakoan edo gizakiaren heriotza unea finkatzeko zailtasunetan (organoen transplanteak) ere. Teologiak zientzia juridikoen lanean ere eragina du (adibidez, elizen “norberaren buuruaren ulermenaren” garrantzi mugatuaren moduan erlijio askatasunari edo erlijioeko konstituzio zuzenbideari dagokionez).

Hezkuntza eta formazioa

Zientzia juridikoak hezkuntza eta formazioa eskatzen ditu aldi berean. “Hezkuntza gabeko legelariak” ziurtasun arriskua dira (P. Schneider). Beren porrota sistema totalitarioei buruz ezagunegia da. Hezkuntza gutxieneko neurri batek –humanismoak eta ilustrazioak elaboratu dituzten, adibidez, giza duintasuna eta tolerantzia, justizia eta guztion ongitasunaren gaietan– legelaria babes dezake sistema bidegabeetan erortzetik. Formazioak legelariari transmititu behar dizkio mende askoren eta erabaki judizial berrien testu juridikoetan pilatutako eskarmentuzko altxorra eta halaber F. C. von Savignyren (1840) ulerkuntzarako lau metodoak (hitzezko esanahia, historia, sistemaren arabera eta xedea), baita justiziaren irizpideak ere, zein egun angloamerikarren *due process* eta *fair trial*-ez zabaldu baitira. Arazoei begira eta

“Egun, legelari europarra da erronka”

azken finean justiziaren irizpidearen arabera orientaturiko kasu-konponketa eta legegintza politikarako pentsamendu alternatiboa ere gaineratu behar dira. Arau anitzen –adibidez, kontratu askatasuna eta kontratu justizia, “*nulla poena sine lege*”, “*ne bis in idem*”, baita urrezko araua ere (“zuzenbide nahi ez duzuna...”)- oinarria gaur konstituzio-estatuaren funtsezko baloreetan dago; pentsatu “zuzenbideko estatuaren” printzipioaren balio ia osoan orain ere Ekialdeko Europan. Beste zientzietan eta arteetan bezala, orobat zientzia juridikoan klasiko jakin batzuk eta paradigma jakin batzuk gidari suertatzen dira: J. Locke britainiarra (1690), bere gizarte kontratuaren teoriari esker; Montesquieu, botereen banaketari esker (1748), eta halaber I. Kant giza duintasunari esker (gizakia inoiz ez da bitarteko hutsik, beti ere “norberarekiko xedea” baizik, 1785), Konstituzio Auzitegi Federal alemaniarrek beti ere praktikatu duena. J. Rawls amerikarrak gizarte kontratuaren paradigmaren berpizkundea eragin du (*A theory of justice*, 1973). Nahitaezko antklasikoa dugu Hobbesen esaldia: “*auctoritas, non veritas facit legem*”. F. Schillerren (Posa markesaren) hitzek “Jauna, eman pentsamendu askatasuna” eta halaber Napoleoni egindako *Eroica*-ren eskaintza Beethovenek ondoren ezabatu izanak (Napoleonek 1804an bere buruan enperadore koroa ezarri eta gero), “1789ko ideiak” zabaltzeko gehiago lagundu zuten saiakera juridiko profesional askok baino. Eta B. Brechten galderak –“estatuko botere osoa herriari dario, baina nora doa gero botere hori?”–, behin eta berriro ematen die aukera legelariei beren jardura kritikoki aztertzeko.

Egun *legelari europarra* da erronka.

Bultzada politikoa 2. munduko gudaren ostean eman zuten politikari handi batzuek, esate baterako J. Monnet, R. Schumann, K. Adenauer eta A. de Gasperi. Dagoeneko bilakatu da europar zuzenbidea esanahi estuan (hots, Europar Batasunaren eta Europar Erkidegoarena, 1957ko Erromako itunetan eta orain 1992ko Maastrichtekoan eta 1997ko Amsterdamgoan oinarrituta) eta europar zuzenbidea esanahi zabalean (hots, Europako Kontseiluarena bere ereduazko Giza Eskubideen Europar Hitzarmenarekin eta Europan Segurtasuna eta

“ Legelari orok dauzka norberaren etikako lotura eta gizarte osoaren aldeko ardura ”

Lankidetzarako Erakundearena). Estatuetakoa ordenamendu juridiko guztiak europartze azkar baten menpe daude. Ondorioz, zientziak zuzenbide konparatuari gogor ekin behar dio. Zientzialariarentzat eta epailearentzat ulerkuntzako bosgarren metodoa bilakatu da zuzenbide konparatua (1989). “Boloniatik Bruselara” irudia (H. Coing) bilakaera hauen topiko gisa erabil daiteke, baita “konstituzio zuzenbide erkide europarra” kontzeptua ere (1991). Jakintzagai bereziak bilakatzen ari dira, esate baterako, administrazio zuzenbide europarra, zuzenbide penal europarra, zuzenbide sozial europarra eta lehiaketaren zuzenbide europarra. Zuzenbidea aurrerantzean ezin daiteke bananduta eta estatu barrura begira irakatsia edo ikertua izan. Arrazoi honengatik “Erasmus” eta “Sokrates” moduko trukaketa programak ezinbestekoak dira. Kontinente europarreko zuzenbide kodifikatuaren eta idatzi gabeko kasu-zuzenbide angloamerikarraren arteko ohiko dualismoa arian-arian erlatibizatzen joango da (baita Luxemburgeko Justizia Auzitegiari eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiari esker ere).

Norbere buruaren ulermena ikerkuntzan eta doktrinan

Jurisprudentziaren izaera zientifikoa ez da gaur eztabaidatzen (“arrazionala, diskurtsiboa, argudio-erabiltzailea”). Demokrazia pluralistaren gizarte irekiaren arabera Popperren “presuntziozko jakituriaren” teoriari eta bere “saiakuntzazko metodoari” jarraitu ala indar gehiagoz balore-, erakunde- eta estatuari buruzko teoriekin orientatu, nahitaezkoa da aurre-ulermenak eta metodo aukeraketa agerian arrazoibidez uztea (J. Esser). Lehen bezala orobat orain “eskolen arteko liskar” gehiegi daude: konstituzio zuzenbidearen arloan adibidez estatuaren eta funtsezko eskubideen ulerkuntzan, baita zuzenbide penalean ere (ez bakarrik Alemanian). Praktikan beharrezkoa da teoriarako elementuak pragmatikoki bat egitea,

gizakiarentzako kasuan kasuko justizia lortu nahi baitugu; batez ere auzitegiek lortu behar dute hori. Zientziari buruzko W. von Humboldten kontzepzioak (egiaren bilaketa iraunkorra; konparatu Konstituzio Auzitegi Federal alemaniarra, 35. urtea, 79 orr. [113 eta hurr.]) oraindik lotzen gaitu; honexegatik medikuntzan azken boladan egindako faltsukeriek legelariarentzat ere oharra izan behar dute.

Prusiako erreformatzailearen gainerako idealek –“ikerkuntza eta teoriaren batasuna”, “irakasleen eta ikasleen komunitatea”– gaur urritasun asko erakusten badute ere, jarraibide orokorrak izaten jarrai dezakete zientzia juridikoarentzat unibertsitate masifikatuetan. Esparru batzuetan egungo ikerkuntza, hala badagokio, biharko teoria bilakatuko da, edo bilakatzeko aukera izan behar du. Kulturaren konstituzio zuzenbidean desberdintzean edo zuzenbide zibileko bidegabeko aberasketari buruzko teorien badaude horrelako adibide positiboak.

Klasikoa da *culpa in contrahendo* kategoria juridikoaren asmamena (R. von Ihering, 1860), baita “segundo logikoa” ere; zuzenbide penalean zigor-xedeen modernizazioa (F. von Liszt, 1882). Kasu praktikoen inguruan nagusiki arazoak eta erantzunak buruz ikastera orientatuta dagoen zuzenbidearen ikasketa-sistemak kolokan jartzen du zuzenbide positiboaren irakaskuntzaren eta arazo zehatzetara egokitutako azterketen zientifikotasuna, baita legegintzako politikaren bidez irtenbide hoberen aldeko lehia. Zientzia juridikoak oinarrien ikerkuntza eta halaber, adibidez, oinordetzaren edo jabetza-erregistroaren zuzenbide positiboko arau baten “azken” ulerkuntza zorrotza behar ditu. Zientzia juridikoaren aparteko lotura praktikoa erantzukizun areagotu horrekin lotzen du. Legelari orok dauzka norberaren etikako lotura eta gizarte osoaren aldeko ardura. Biei kalte egiten die, nire iritziz, unibertsitate-irakasleek daukaten txosten gehiegi idazteko ohiturak, zeinak oharkabeko ustelkeria mota batera eraman baitezake (iritzi hau ez da gehiengoarena!). Langileen eta ugazaben ideologietatik askatzeko lan-zuzenbidearen zientzia juridikoak zailtasunak dituen bezala, orobat konstituzio zuzenbidearen teoriak kontuak egin behar ditu politikarako daukan hurbiltasun bereziarekin. Unibertsitate-irakasleak gelan saiatu behar du bere burua alderdi politikoekiko konpromisotik aske izaten.

Egungo espezializazio guztiak aintzat harturik ere (adib., kriminologiaz, kontratazioaz, garraiobideen edo familiaren zuzenbideaz e.a.), hala eta guztiz ere, *zuzenbidearen batasunaren* postulatuari eutsi beharra dago, ez esanahi axiomatikoz, esanahi praktikoz baizik. Jurisprudentziaren oinarriei buruzko jakintzagaiek batasun hori ikertzeari ekiten diote. Horien artean zuzenbidearen historia (zuzenbide konparatua



31 Ambrogio Lorenzetti, *Das gute Regiment (König und Räte)*, 1337-39.
Friedrich-Samml., Palazzo Pubblico

Ambrogio LORENZETTIren Jaurilaritza ona koadroa (1339).

historian zehar) eta konparaketa (zuzenbide konparatua lurraldean zehar) ditugu; baita “zuzenbide zuzenaren” aldeko bilaketa iraunkorra den zuzenbidearen filosofia ere. Dena dela, jakintzagai berrientzako irekitasunak ere egon behar du; zuzenbide soziala hirurogeietako hamarkada arte ez zen finkatu. Lan-zuzenbidea, zati askotan kasu-zuzenbidearen adibide klasikoa dugu (Kasseleko Lan-Arloko Auzitegi Federalaren jurisprudentziari esker). “Internet” gero eta gehiago araututa dago eta horrela jakintzagai ere bilakatzen ari da.

Ikasketen erreforma baten aukerak eta mugak

Legelarien formazioaren erreforma beti eztabaidagai izan da, batzuetan unibertsitate-erreformaren eztabaida orokorraren barne egon ohi bada ere. Nire iritziz “legelari orokorrei” eutsi beharra dago: hau da, estatuko azterketa juridiko *biak* gainditu arte ez dago epaile, abokatu e.a. gisa espezializatzerik. Zuzenbide ikasketen berezitasuna Alemanian, lan mota anitzetarako ateak zabaltzen dituztela da (“legelarien pribilegioa” desagertzen bada ere). Baina justizia sistemari estuegi atxikitzen zaion ohiko formazioari dagokionez, erreforma beharrezkoa da hor. Beste erreforma gai batzuek bitarako judizioak eskaintzen dituzte. Sarrera-azterketek badute desabantaila bat: bidea ixten diete berandu bilakatzen direnei, hau da, ondoren sarri zientzialari izango direnei. “Bitarteko azterketak” burutzea oso zaila da praktikan. “Dohaineko saiakeraren arauketak” (hirugarren azterketa deialdi gehigarri baten aukera zortzigarren sei hilabetearen ondoren lehenbizi aurkeztzen

direnentzat) ikasleak eramango ditu oinarrien irakasgaiak lagatzera eta azterketara “goizegi” aurkeztu nahi izatera. “Euro-legelaria” beste arazo bat da. Egia da hizkuntza ezagupen gehiago nahitaezkoa dela egungo “Europako zuzenbideko erkidegoan”. Baina fakultateetan ez da zernahirako zuzenbide europar bat irakatsi behar. Europartzea gorabehera estatu bakoitzeko zuzenbideko erkidegoa oraindik ere euskarri bakarra da, eta Europakoa osagarritzat ezar daiteke eta ezarri beharko litzateke. Ekonomiaren ezagutza (eta informatikarena) ikasketa programa berezien bitartez zorroztu behar da. Ekonomiaren “esku ikusezinak” eta “zuzenbidearen esku ikusgaiak” (E.-J. Mestmäcker) elkar osatzen dute.

Zientzia juridikoa gainerako kultur zientzien inguruan

Gauza batzuek “zaharkitu” irudi dezakete. Jurisprudentzia kanonen moduko, ohitura zaharreko, standardekin lan egiten duen eta europarrak diren oinarri asko dituen zientzia da, zein hurbileko jakintzagaia eta –erakutsi den moduan– literaturara (“olerkari legelariak”) edo arte ederretara ere (erdi aroko “justiziaren irudiak”, ik. ere “jaurilaritza onaren” koadroa Sienan, 1339) eramaten baitute. Jurisprudentzia –garai honetako ekonomismoaren aurka doa hau– kultur zientzia da: zientzia bat, zeinean testu eta erabaki juridikoak kulturaren *testuinguruan* jarri, horretan ulertu eta horretatik bilakatu behar baitira. (Askatasuna ere azken batean *kultur* askatasuna da, kulturaz osatutako askatasuna, esaterako hezkuntza). Bere objektua kultura juridikoa da, kultura *gizakiak* sortutakotzat ulerturik (“bigarren sorkuntza”). (Merkatuak tresna

gisa besterik ez dauka garrantzirik). Oso erreza litzateke erakustea nola zuzenbide zibilaren teorien historiako giltza-hitz asko (Zuzenbidearen Eskola Juridikoa, Kontzeptuen Jurisprudentzia, Interesen Jurisprudentzia) "Garaiko Espirituzko Egoerari" darizkion. Schleiermacherretik H.-G. Gadamerera doan hermeneutikak lotzen du jurisprudentzia lan-metodo orokor gisa beste gogoeta-zientziekin. Natur zientzia asko beraien kultur historiako oinarriez jakitun direnez geroztik, natur zientziekiko ez dago oposizio gaindiezin gehiagorik. Topaketa gunee bereziak suertatzen dira ingurumenaren eta teknikaren zuzenbidean (ik. ingurumenaren babesari buruzko Funtsezko Arauaren 20.a artikulua berria), baita medikuntzaren zuzenbidean ere. Kultur zientzia moduko ulermen honi esker zubiak eraiki egiten dira, zirkuluak itxi egiten dira; Grezia zaharraren hastapenetan bezala, orduan zientzietan eta kulturen izandako aparteko gorakada bezala.

Itzultzailea: Xabier Arzoz

